

Kar-Car-Kar bezeroekin harremanak nahiko sinpleak eta pertsonalak izango dira. Herri txikietan bizi diren jendeak ez dauka beti aplikazioak erabiltzeko ohiturarik, beraz gure helburua da laguntza pertsonala eskaintzea erabiltzaileei. Horrek esan nahi du bidaiak nola sortu, nola apuntatu edo nola informazioa eguneratu erakutsiko diegula, eta zalantzak argitzeko prest egongo garela beti. Harreman pertsonala gauzatzeko, herri bakoitzean laguntzaile lokal batzuk izendatuko dira, erabiltzaileekin zuzenean harremanetan egongo direnak, teknologiarekiko ezohiko zalantzak argitzeko, pausoak azaltzeko eta fkomunitatean konfiantza giroa sustatzeko. Laguntzaileek erabiltzaileekin telefonoz, mezu bidez edo zuzenean aurrez aurre ere harremanetan egon ahal izango dira, eta erabiltzaile bakoitzaren beharrak kontuan hartuta ahalik eta laguntza pertsonalizatuena eskainiko dute. Era berean, erabiltzaileen iritziak jasoko dira etengabe, eta behar izanez gero laguntza zuzena emango zaie berriro, erabiltzaile bakoitzaren esperientzia hobetuz eta eurei aplikazioa errazago erabiltzen lagunduz.

Baina ez da dena pertsonala izango. Zerbitzu automatizatuak ere izango ditugu, erabiltzaileek euren kabuz bidaia sor dezaten eta jakinarazpen automatikoak jasotzeko: lekuak bete direnean, bidaia bertan behera geratzen denean edo bidai berri bat sortzen denean. Gainera, erabiltzaileek euren bidaien jarraipena egin ahal izango dute, helmuga eta ordutegiak eguneratuz, eta aplikazioa automatikoki gomendio batzuk bidaliko dizkie, adibidez "Bihar Zornotzara bi bidaia daude, oraindik lekua libre". Honek erabiltzaileei asko laguntzen die denbora aurretik eta bidaia aukerak errazago aurkitzen, eta aldi berean aplikazioaren erabilera 24/7 egonkorra izatea ahalbidetzen du. Era berean, sistemak erabiltzaileari jakinarazpenak bidaliko dizkio aurretik apuntatu dituen bidaiak gogoan jartzeko, beraz ez da inoiz bidaia bat galtzen edo lekuak beteta dauden unean huts egin.

Era berean, Kar-Car-Kar komunitatea sustatzeko ere pentsatua dago. Erabiltzaileak elkarrekin hitz egin, gomendioak partekatu eta aplikazioa hobetzeko ideiak eman ahal izango dituzte. Horrelako interakzioak konfiantza eta elkarlana sortzen laguntzen du, herri txikietan oso garrantzitsua den zerbitzu, eta erabiltzaileek baten baten bidaia partekatzea erosoago eta seguruagoa sentitzea errazten du. Ko-sorkuntza ere garrantzitsua izango da, erabiltzaileek proposatutako hobekuntzak kontuan hartuko baitira aplikazioaren eguneratzeetan, eta horrela herritarrek zerbitzuaren garapenean eragin zuzena izango dute.

Gainera, Kar-Car-Kar-ek harreman zuzenak izango ditu Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin, mugikortasun jasangarriaren aldeko ekimen gisa. Gure proiektuak auto gutxiago erabiltzea eta ondorioz kutsadura murriztea sustatzen du, eta hori instituzio publikoek defendatzen dituzten helburuekin bat dator. Horregatik, erakunde hauekin elkarlanean aritzea funtsezkoa da: haien babesak eta koordinazioak proiektuaren garapena erraztuko dute, eta herri txikietan mugikortasun eredu garbiago, merkeago eta eraginkorragoa ezartzen lagunduko dute.

Laburbilduz, Kar-Car-Kar-ek laguntza pertsonala, zerbitzu automatizatuak eta komunitatea uztartzen ditu. Helburua da herri txikietan mugikortasuna erraztea, erabiltzaileak elkarrekin konektatzea eta elkarlana bultzatzea, eta hori guztia modu sinple eta erabiltzailearentzako atseginean. Era berean, herritarrek euren esperientziak partekatzen dituzten heinean,

aplikazioa etengabe hobetuko da, eta horrek guztiak proiektuaren arrakasta eta komunitatearen kohesioa bermatuko du.